

Historiaz jositako hiritan, tarteka tokirik ustekabeenean, aurki ditzaitezke iraganetik zuzenean etorritako zantzuak, zu ere iraganera garraiatzeko ahalmena dutenak. Hiri historiko batean dabilena garai askotan ibil daitezke, denbora makina batean bezala.

Denbora makinak halako arasa edo beribil baten gisa irudikatzen dituzte filmetan, pertsona bat bertan sartu eta beste nonbait edo, hobeto esan, beste noizbait aterata. Baina bat-batean pentsatu dut denbora makinak ez ote zuten sinetsgarriago funtzionatu

JIRA
Angel Erro

tuko estaldura jakin bateko telefono antenen moduan. Orduan, irudikatu dut nire hirian hainbat aro historiko gerta litezkeela aldi berean, zonaka. Berez dagoeneko gertatzen denarekiko keinuz betetako eleberri bat bururatzten hasi zait.

Seguruenik ezinen zen auzo historiko batetik bestera erraz zeharkatu. Hiriko garaien arteko itxiera perimetrala egonen zen, diot nik, beti ez badut ere argi nork nahi izanen zuen maizago batetik bestera edo, hobeto esan, noiztik noizera pasatu. Nobela gaizki amaituko zen, noski, beste baliabideen ustiaketa, izurrite bat (baina ez dakit zer garaitan) eta batzuek garai-borroka asmatuz eta bestetuek zapalduta.

Egile eskubideak oraindik salgai ditut XIII., XXI. eta XXV. mendeetan.

Kontzientzia

Ikasi dugu *ezgaitasuna* edo *ezindua* edo *atzeratua* ez direla berba egokiak. Bada-kigu gure lantokian edo gure seme-alaben eskolan itsuak, autistak, gorrak, Downen sindromea dutenak... egongo direla. Batzuetan, ez beti, kafe ordua konpartituko dugu haiekin, edo, txikiak diren artean, gure umeen urtebetetze festara gonbidatuko ditugu.

Adin batetik aurrera, ordea, esango dugu gure seme-alaba nerabeei ezin diegula zama hori jarri nahi ez badute, edo esango diogu geure buruari lanorduetatik kanpo ez dugula inoren ardua hartu beharrik. Eta orduan, ikasi dugun hori guztia, politikoki zuzena den hori guztiori gezur handi bat dela ikusiko dute benetan aniztasun funtzionala dutenek edo haien senideek. Ez gara guztiontzat egindako mundu batean bizi; ez dago aukera berdintasunik. Politika publikoak zuloz beteta daude, baina gure kontzientzia ere errazegi konformatzen da.

Gaur, esate baterako, autismoarekiko kontzientzia hedatzeko nazioarteko eguna da, baina oporretan gaude, eta Kopako finala da justu bihar, eta gure kontzientziak okupatu egingo daude. Bihar edo etzi edo datorren astean, autistekin komunikatzearen zailtasunak hitz egingo dugu tabernaren batean. Eta ez gara ohartuko, benetan, ez gutxi komunikatzen garen gu geure kontzientziarekin. Bestela, ez genuke lorik egingo.

Gaur, esate baterako, autismoarekiko kontzientzia hedatzeko nazioarteko eguna da, baina oporretan gaude, eta Kopako finala da justu bihar, eta gure kontzientziak okupatu egingo daude. Bihar edo etzi edo datorren astean, autistekin komunikatzearen zailtasunak hitz egingo dugu tabernaren batean. Eta ez gara ohartuko, benetan, ez gutxi komunikatzen garen gu geure kontzientziarekin. Bestela, ez genuke lorik egingo.

Adierazpen askatasuna: berri on bat Estrasburgotik

Jon-Mirena Landa Gorostiza

Giza Eskubide eta Botere Publikoen EHUKo Unesco Katedraren zuzendaria

Pandemia garaiotan berri txarrez inguraturik bizi gara. Halako ezkortasun giroan. Burua ezin altxa batzuetan, berri onik existitzen ote den galdetzeko gogotan apika.

2021eko martxoaren 9an Europako Giza Eskubideen Auzitegiak (*Benitez eta Fernandez v. Espainia 2021*) epaia eman zuen, adierazpen-askatasunarekin zerikusi duen gai baten harira, hain zuzen ere, Espainiako Estatua aipatu eskubidea (Europako Giza Eskubideen Hitzarmenaren 10. artikulua) urratu duelakoan. Gaiak ez du komunikabideetan aparteko zalapartarik eragin baina, nire iritzi apalean, bada-kar halako berri ona, nabarmentzea merezi duena.

Egitateak Teruelgo halako herri txiki batean, 70 biztanletara ere iristen ez denean, gertatu ziren, Aguilar del Alfambra izenekoan. 2007an enpresa batek (Watts Blake Bearer España SA: WBB-k) aipatu herri udalaren aurrean meategi bat martxan jartzeko baimena eskatu zuen, eta, hasiera batean horri ekiteko lizentzia eman bazioten ere, geroxeago udalbatzak, lizentzia arrunta ez baizik eta inpaktu-ebaluazio sakonago bat behar zelakoan, erabaki berri baten bitartez aurreko lizentzia deuseza aldarrikatu egin zuen. Erabaki hori, meategia martxan jartzea galarazten zuena, izan zen enpresak auzitegiatar, administrazioarekiko auzi-prozesu batera hain justu ere, eraman zuena.

Meategiak eztabaida publikoa eragin zuen Aguilar del Alfambra eta horretan modu eraginkorren GKE gobernuz kanpoko erakunde batek parte hartu zuen, meategi-entresaren aurka eta ingurumenaren defentsan: Plataforma Ciudadana Aguilar Natural zuen izena. GKE honek ez zuen formalki auzi-prozeduran parte hartu baina, noski, hura jarraitu zuen eta horren inguruko bere iritzia eman ere, tokiko egunkari batean gutuna argitaratzeraino. Eta hemen dator gatazka. Epaileak enpresaren aldeko lehenen-

go erabaki bat hartu zuen 2009an eta oraindik gora jotzeko errekursoa erabaki gabe zegoen bitartean, GKEak aipatu eskutitza bidali zuen prentsara, oso modu gordinean epailearen aurka joz. Besteak beste, leporatzen zion ez zuela kompetentzia teknikorik ez interesik auzia justiziaz erabakitzeko: ez zuela aintzatzotzat hartu txosten teknikoaren edukia; erabakia hartua zuela eta gero jantzi besterik ez zuela egiten. Bi hitzetan, partziala zela, guztiz. Gutunaren bukaeran, esaterako, zera esaten dio epaileari: «boterea (autoritatea) izango duzu, baina ez zara justiziaren ordezkaria».

Horren aurrean, bere ekimenez, Fiskaltzak kereila kriminala aurkeztu egin zuen Plataformako kideen aurka eta publikizitatez egindako ohorearen aurkako delitua (Zigor Kodearen 208., 209. eta 211. artikuluetakoa) leporatu ziren gutunaren egileei: irainak omen ziren epailearen aurka botatakoak. Epaile penalak Fiskaltzaren interpretazioa bere egin eta akusatuak kondanatu egin zituen isuna ordaintzera (2.400 euro), bai eta egunkari berberetan eta haien kostura (beste 2.758 euro) epaia argitaratzera eta, azkenik, erantzun zibila ere (beste 3.000 euro) ordaintzera. Orotara 8.000 euro baino gehiago ordaindu behar zuten.

Akusatuak, Benitez eta Fernandez izenekoak, Estrasburgora jo zuten haien adierazpen askatasuna urratua zelakoan, eta Europako Giza Eskubideen Auzitegiak arrazoia eman berri die, joan den martxoan. Arrazoia ematean ez ezik, arrazoibidean ere berri ona dago. Ikus dezagun.

Estrasburgok bere ohiko doktrinari ekiten dio, eta hasten da aldarrikatzen adierazpen askatasuna eskubide absoluturik ez dela eta, hortaz, mugatu daitezkeela «demokraziarentzat beharrezkoa denean». Esamolde tekniko horrekin, atzeko interes-gatazka baloratu beharra dagoela esan nahi da:

Kritika publikoa, gai publikoetz egindakoa, zibilizatua eta edukatua izan daiteke; baina, Estrasburgok dioenez, baita gogorra eta ia ofentsiboa ere

zeinek balio du gehiago? Espainiako Fiskaltza eta epaileentzat, epailearen ohoreak; Estrasburgorentzat, ordea, adierazpen askatasunak. Zergatik?

Lehenik eta behin, gaiak badu interes publikoa: ez da gatazka pribatu bat, baizik eta ingurumenaren gaineko kontua, modu publikoan eztabaidatzea merezi duena. Bigarrenik, epaileek badute ohorea, eta, gainera, askotan, beraien lanbidea dela-eta, ezin dute beraien burua defendatu; esaterako, norbaitek gutun publiko batean zeozertaz akusatzen badute. Dena dela, epaileak pertsona publikoak direnez gero, kritika jasotzeko prest egon behar dute, norbanakoek baino gehiago. Hau da, demokrazia batean pertsona publiko horiek, botere-ordetzari gehiago txikiagoa eduki behar dute, kritika publikoak lekua irabaz dezan. Azken honek demokrazia sendotzen duelako. Eta esandakoa, aparte, baina ildo beretik, kritika egiten duena gobernuz kanpoko erakunde bat bada, azken honi prentsa-estatus berbera aitortzen zaio: alegia, *watchdog* edota atari-txakur modukoa, demokrazia-begirale, bermatzailea, izatearen estatusa. Gobernuz kanpoko erakundeak, gainera prozeduran parte formalak ez denak, badu kritika publikoa egiteko esparru oso zabala, prentsak eduki behar duen besteakoa.

Kritika publikoa, gai publikoetz egindakoa, zibilizatua eta edukatua izan daiteke; baina halaber, Estrasburgok dioenez, gogorra eta ia ofentsiboa, txunditzeko modukoa izateraino iritsi liteke. Horrek bermatzen du inork ez duela beldurrik izango bosterea kritikatzeko duenean. Horrez gainera, gutuna egunkari batean argitaratzeagatik ezarri zen zigorrak, isuna izan bazen ere, espetxe zigorra ekar dezake ordaindu ezean, eta hori ez da proportziozkoa: horrek aipatu beldurra zabal dezake ez bakarrik gutuna idatzi dutenengan, baizik eta donorenengan, bitan pentsatuko baitute bosterea kritikatu aurretik. Funtsezko eskubideen *chilling effect* edo etsipen-ondorioa (badaezpadako isilik egotea) saihestu behar da demokrazia on eta bete-betekoan.

Estrasburgok Espainiako Estatua kondanatu du, azken buruan, adierazpen-askatasuna urratzeagatik, eta 9.341 euro ordaindu beharko dizkie akusatuei. Ez al da, akusatuentzat ez ezik, gu guztiontzat eta oro har demokraziarentzat ere berri on bat?